

Atuchagandik harat

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Hizkuntzalari eta idazlea

HOY ESCRIBE

«Tengo confianza plena y total en Atucha», Mayor Oreja dixit.

Eta bide beretik «ABC» egunkariak: «El País Vasco sería diferente si todo el PNV fuera tan claro como Atucha».

Fragaren partiduko buruzagiek ez dute beren mirespena izkutatzen: «Atucha rebosa sentido de Estado». Edo-ta beste lore hauek: «Atucha tiene casta de político... es un hombre valiente...» Eta abar luze bat.

Gezurti galanta dela ere, nabarmenki erakutsi du. Frankismoaren garaian UCDDko gizona izan omen zela-ta, garbi.

Eta, normala denez, eta gertatu direnak gertaturik, aberzale askoren herrak eta ezinegonak, izen hau hartu dute: «Atucha».

Eta, jakina, ez dugu guk ezertxo ere esango edo idatziko bizkaitar Pappon txiki hau garbitzeko.

Baina gakoa ez da Atucha: Atucha postu «autonomiko» horretan atxekitzen eta bazkatzen dutenak baizik. Atucharen atzean Jaurilaritza dago. Eta Jaurilaritzaren hiru pilareak, Espainiako Konstituzioaz gain, PNV, EA eta PSOE dira. Atucharen atzean eta oinarrian, PNVren bi adarrek (siglari eutsi diona eta sigla aldatu duena) daude; eta PNV bikun horrekin eskuz esku (eta ez eskuz esku bakarrik!) PSOE dago, bere gorak eta guzti.

Atucha ez litzateke inor PNV + PSOE bikotea atzean ez balu. Hauixe da orain inolaz ere ahantzi behar ez duguna. (Eta, beste maila batean, PNV + PP bikotea). Faktore amankomunak: PNV batetik, eta espainiar partidu nagusiak bestetik.

Ertzaintza, beraz, espainiar Estatuaren zerbitzuko den legetasuna defenditzeko sortu da. Eta Atucha aparato espainiar horretako pieza (eta zerbitzari leial eta porrokatua) besterik ez da.

Ertzaintza, zoritxarrez, «policía regional española» besterik ez da. Eta hori ere, Madrilo Gobernuak besterik erabakiko ez duen artean bakarrik: «Los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado podrán intervenir en el mantenimiento del orden público en la Comunidad Autónoma... b) por propia iniciativa, cuando estimen que el in-

Gakoa ez da Atucha, PNVren bi adarrek, espainiar anti-euskaldun guztiakin bat eginik (zer lotsagarriagorik joan den asteko Parlamentuko bilera baino?), oinarritzat hartu duten legetasuna baizik

terés general del Estado esté gravemente comprometido» (Autonomi Estatutua, 17.6 Art.).

Jaurilaritzak behar adina egur ematen badu, tira! Bestela, «las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado». Testua irakurri besterik ez dugu egiten.

Madrilgo Gobernuak nahi duena egiten dute Ertzaintzak eta Atuchak. Bestela kalean genituzkeen dagoeneko berdeak, grisak eta kolore guztiak. Lege-Markoa hori baita: espainiar legetasuna eta interesak zaintzea. Horregatik idatzi dugu goian: «Atuchagandik harat» begiratu behar dugula. Nahiz faherretxoarekiko gorrotoak oro ulergarriak izan.

Gakoa ez da Atucha, PNVren bi adarrek, espainiar anti-euskaldun guztiakin bat eginik (zer lotsagarriagorik joan den asteko Parlamentuko bilera baino?), oinarritzat hartu duten legetasuna baizik. Lege-marko horren barruan gureak egin du. Eta Arzalluzek eta Garaikoetxeak badakite.

«Juan Mari Atucha... con su coraje y lucidez, representa en este momento lo mejor de la sociedad vasca... Lástima que Atucha vaya a dejar el cargo dentro de dos años». Nor mintzo da horretara? ETBn zuzendaritza postu garrantzitsuak eta soldata berezia lortu zituen vallisoletano harroxo batek.

Atuchak ongi daki begiztatu urdineko osteak oro dituela atzean. Eta honetxek harrotzen du.

Eta zanpaketa aurrera doa. Orain jakin dugunez aurki onartuko da urriaren 25a «País Vasco» delakoaren jai nagusitzat; Aberrri Eguna zokoratuz eta ahaztuz. Bere logika badu: Gallas-tegik asmatutako nazio-ospaketa ordez. Esparteroeren garaitzpena eta post-frankismoaren errejio-lorea batuko dituen txokolate norfeoak.

Eta espainiarikuntza ere berriro aurrera hartzen ari bide da. Hori agertu da azkeneko inkesta sozio-linguistikoan. Gora zertorren bulkada, tenk. Barreda eta Buesa pozik. Artean Herri Batasuneko zuzendaritza gartzelan dago!

Hala ere martxoaren 7rako egindako greba-deia oraindik ulertzen ez omen dutenak, hortxe daude, aztoraturik: «pero, ¿qué pasa, pues? ¿Por qué no pagan la fianza?».

Atucharen balentrieta eta harrokerien gainetik funtsean gertatzen ari dena konprenitu ez duguno, jai.

El culto al cuerpo

Alizia STÜRTZE / Historiadora

NIRE TXANDA

La utilización, el reconocimiento, el disfrute de nuestro cuerpo puede ser hermoso y liberador, pero puede ser también alienante. Si con la revolución sexual de los 60 (llamada así en un reduccionismo muy parecido a ése que nos anuncia la llegada de la revolución vía Internet que olvida que la revolución es algo muy complejo que no se limita ni al sexo ni a estar conectado a un aparato) pareció que soltábamos amarras y dábamos al soporte corporal la parte que le correspondía en nuestro desarrollo integral, últimamente el cuerpo parece estar convirtiéndose en mero objeto de consumo en una sociedad que no ofrece ninguna otra expectativa de libertad global.

Aerobic, pesas, cirugía plástica, cambio de color o de sexo... La nueva plasticidad del cuerpo, su nuevo potencial de metamorfosis, nos permite escapar en cierta medida a nuestro destino biológico, algo impensable hace unos años. El cuerpo se convierte así en un nuevo campo de lucha y de autorrealización (no hay más que ver lo cachas que se ponen los beltzas en el gimnasio para poder autorrealizarse mejor en el trabajo). Ya no nos interesa cambiar la sociedad. Nos conformamos con cambiar nuestro cuerpo y reducimos así el campo de lo social a lo meramente personal.

Esta política del cuerpo, esta elevación de las funciones corporales a la categoría de «liberación», no se limita desgraciadamente a las capas pudientes (aunque éstas tengan, claro está, más posibilidades) sino que está cada vez más presente entre las clases trabajadoras, sobre todo entre los jóvenes para quienes el bajarse el cuerpo, lo mismo que la posesión de coche o inalámbrico, o la posibilidad de viajar o de seguir la ruta del bakalao entre botellín y botellín de agua (¿qué sano!), se convierten en signos de liberación, cuando no son sino espejismos, sucedáneos de liberación. Y es que pensar que somos libres en nuestras funciones animales, corporales, es muestra precisamente de la división que nos impone la sociedad capitalista. Nuestra vida social, nuestra vida productiva, es un coto cada vez más cerrado, más estanco, cuya organización no podemos discutir. La acción colectiva es impensable y, por lo que nos quieren hacer creer, imposible. La sociedad no se puede cambiar, el paro no se puede cambiar, los contratos basura son como son, estamos cada vez más inermes en medio de una sociedad cada vez más competitiva, somos juguetes de un mundo y un destino que no comprendemos ni podemos controlar. Y buscamos significado a nuestra vida en un lugar donde, por desgracia, no lo vamos a encontrar.



Herria

Legea lege

Gehexan Ponto
Hauxe da arrabotsa oraindik bozkatua ez den lege baten kontra! Hirurogei bat filma egile, gero jokolaririk, gero idazleak, azkenik unibertsitateko erakasle batzuek altxatu dira lege-gai delakoaren kontra, erranez desobeditu behar dela.

Ez gara halakoak gu, euskaldunak. Errespetu handia diogu legeari, hala nola kontrabandoan ari dena ez baita lanean ari gauaz baizik, hala nola ere, arrabots gutierekin Euskal Herria aterbe-lur den euskaldunentzat, lehen bezala orai ere. Gogoan erabil bezate frantses intelektualek, espainioi pixka bat balinbadakite. Bizkaiko foruak

diona: «La ley se obedece pero no se cumple».

Argia

Musika entzuteko ez da nahikoa belarriak izatea

Jose Inazio Ansorena

Iritsi da optikara gizona eta eskatu du: «Betaurreko batzuk nahi nituzke, irakurtzeko». Berehala hasi zait optikoa tankera eta neurri guztietako betaurrekoak eskaintzen eta, janztean, beti crantzun berbera gizonak: «Hauekin ez dut batera irakurtzen». Hainbeste probatu ondoren errezeloa sortu zait optikoari: «Baina zuk ba al dakizu irakurtzen?». «Irakurtzen jakingo banu, zertarako beharko nituzke betaurrekoak?».

Irakurtzeko ez da nahikoa begiak edo betaurrekoak izatea. Arau batzuk jakin beharra dago. Musika sinfonikoaz atsegin sakon,



Kiliak "Hika"n, 97-2-20koa.

trinko, mamitsua lortzeko ez da nahikoa belarriak izatea. Zerbait gehiago ezagutu behar da. (...)

Maiz entzuten da musika erreallitate unibertsala dela. Bai eta ez.

Egia da: historian zehar pertsonak hitzen bitartez ezin adieraz zitezkeen sentimenduak, kezak, itxaropenak azaltzeko artea erabili dute eta kasik ezagutu diren kul-

tura guztietan hotsen bitartez sortutako egitura artistikoak aurkitu dira. Baina hotsen bitartez artea sortzeko erabili diren moduak oso bariatuak dira. Horietako asko, gure kulturaren ikuspegi estutik begiratuta, musika izenez bataiatzen oso arraroa gertatuko litzai-guke. Besteak beste, kultura arlo berberak, bide berberetatik eta ahalagin berberetz landu.

Mendebaldeko kulturari, emaitzarik gorenetakoa orkestra sinfonikoa da dudarik gabe. Pertsonak dituen adierazpen behar sakoneki ere laguntzeko tresna egokia, mendeetan zehar sortua eta artista askoren intuizio eta lanaren fruitua. Baina, horren ondorioz, oso konplexua. Horregatik pikkana ezagutzen hastea komeni da.

Euskadiko Orkestrak bide hori urratu nahi izan zuen eta abiadarako laguntza eskatu zidan. Eta pozik nago, batez ere kontzertuetara etorri den jende askori, topaketa aberasgarria izan duela igarri diodalako. Benetan pozik.